

Autoikaskuntza-zerbitzua euskara ikas-irakasteko (I)

Iñaki Unibaso

Aspaldi honetan, sarritan entzun eta irakurri ahal izan dugu helduen euskararen irakaskuntza maldan behera datorrela, eta, euskaltegien sektoreak, krisialdian egonik, ausardiaz jokatu eta berrikuntzak proposatu beharko lituzkeela esparru berriak irabazteko eta betikoak ez galtzeko. Ildo honetatik, ordenagailu bidezko ikas-prozesuak eta autoikaskuntza-sistemak, besteak beste, gero eta ozenkiago aldarrikatu izan ohi dira, arazo gehienen konponbidea bailiran. Aldi berean, eta neurri batean behintzat, joera nabaritu da ohiko taldeikaskuntza mada-rikatuen txokora baztertzeko. Baina, betiko legez, oreka mutur bi horien artean bilatu behar dugu, bakoitzaren nahien eta ahalmenen arabera, batera zein bestera gehiago hurbilduz. Bestalde, taldeikaskuntzan gertatu bezala, autoikaskuntzan ere ez dago jokabide edo aukera bakarra eta, ikasleek ikas dezaten balio duten neurrian, den-denak dira erabilgarri, emaitzek erakutsiko baitigute zeintzuk diren emankorrenak. Beraz, ondoko lerroetan, hausnarketarako bide bat eskaini nahi da, izan beharko lukeen ez baina izan daitekeen adibide batez osotua. Azkenik, esan beharra dago ekarpen hau HABEren ardurapean antolatutako Autoikaskuntza Batzordean izandako eztabaidak, iritzien trukaketa eta erabilitako materialak kontuan hartu gabe askoz urriagoa izango zatekeela. Doazkiela, beraz, bertan lankide izan ditudan guztiei nire eskerrik beroenak.

“Zertaz hitz egiten duen benetan dakienak ez du ahotsa ozentzeko arrazoirik topatzen”

Leonardo da Vinci (1452-1519)

Sarrera

“Jakintsua iritiz alda daiteke; ergela, inoiz ez”

Inmanuel Kant (1724-1804)

Betidanik izan ohi dira, hizkuntzen esparruan zein edozein gairen ikaskuntzan, tutore edo irakasle baten jakituriaren eta gidaritzaren pean jardun dutenak, baita beren kabuz, ia inoren laguntzarik gabe, ezagutza-maila jakin batera heldu direnak ere.

Batzuek, gehienek aspaldi honetan, eskuragarri eta erabilgarri izan dituzte irakaslearen (*kapitaina*) lanaz gain, espazio zehatza, hau da, ikasgela (*itsasontzia, batzuetan txalupa*), baita ekinbide horretara zuzendutako eta egokitutako materialak ere, besteak beste, ikas-metodoak, liburuak eta bestelakoak (*lema, arraunak*).

Besteei dagokienez, berriz, ezaupideen itsaso zabalean eta bakardadean murgilduta igeri eginez, norberaren diziplinapean eta norberak ezarritako metodologiaz jardun ondoren, bakarren batek baino ez du lortu hondartzak zapaltzea, helmugara iristea.

Hala ere, bataren zein bestearen kasuan, gero eta baliabide egokiagoak eta berriagoak eskuratzeko eta erabiltzeko moduan gaude azken urteotan: liburuez gain, irratia, kaseteak, bideoak, telebista, ordenagailuak... Teknologiaren aurrerakuntzak eskaintako tresnek egundoko eragina izan dute, besteak beste, irakastegietan, euskaltegiak barne daudela, eta irakasteko zein ikasteko sistemetan ere: hizkuntza laborategietatik baliabide-zentroetara edo mediateketara. Eta, gaur egun, autoikaskuntza-geletara heldu garen honetan, hizkuntzen irakaskuntzaren metodologiaren eboluzioak ere jaso eta bereganatu ditu teknologiaren ekarpenak.

Horiek horrela, badugu modua, gaur egun, ikasteko sistema eta baliabide berriak ohiko ikasleari eta betiko autodidaktikari eskaintzeko: batzuei bakarkako sistema autonomoa zein bideratua ohiko taldekako ikaskuntza osatzeko, eta, besteei, berriz, aholkularitza gidatua norberaren autoikaskuntza-sistema aberasteko.

Bestalde, ukaezina da gizartea etengabe aldatzen ari dela. Oso urte gutxitan aldaketa handiak gertatu dira bere baitan, maila guztietakoak, gainera. Ikaragarria izan da oso epe laburrean teknologiaren arloan egin dugun jauzia. Arkatza erabiltzetik berehalako batean pasa gara “teknologia berriak” erabiltzera, aurrerapen horiek dakartzaten baliabide guztiekin, lehenago esan bezala. Era berean, orain urte batzuetatik hona, gizarte-mailako eskaerak ere bilakaera ederra izan dute. Eta betidanik geure gizartean onartu ditugun hainbat balore –ikasten jakiteko gaitasuna, zerbait pentsatzen edo antolatzen jakitea, bakarren batzuk aipatzearen– gaur egun edozein pertsonak garatu beharreko ezinbesteko balore bihurtu zaizkigu. Ondorioz, derrigorrezkotzat jotzen da etengabeko prestakuntza norberaren neurrira egokitzea, gaur egungo gizartearen eskaera berriei irtenbideak ematerakoan.

Irakaskuntza ere ez da bilakaera horretatik kanpo geratzen. Eta lehenago aipatutako teknologiaren aurrerakuntzak eskaintako tresnez gain, irakaskuntzaz hitz egitetik ikaskuntzaz hitz egitera pasa gara. Eta autonomia, ikasten ikasi, ikas-estrategiak, ikaskuntza autozuzendua eta heterozuzendua bezalako berbak sarritan erabiltzen dira, gaur egun, maila didaktikoan. “Zeure erritmoan ikasiko duzu”, “zeure premien arabera”, “ordutegia zeuk erabakiko duzu”, “inoren beharrik gabe zuzentzeko moduko materialarekin” eta antzeko baieztapenak ere gero eta

erabilgarriago bihurtzen ari zaizkigu sasoian sasoiko publizitate-kanpainenetan.

Hizkuntz irakaskuntzaren arlora etorrita, eta bereziki euskararen irakaskuntzarenera, ezin ditugu aipatutako joera horiek alde batera utzi. Behar beharrezkoa dugu egungo beharrizanetara egokitzea. Urte askotan honakoa izan da, helduen euskalduntze-alfabetatzean, jardunaren egitura: irakaslea (*kapitaina*), informazio-emailea, eta bere aurrean taldea, informazio-hartzailea. Horrek konpromiso jakinak eskatzen dizkio bertara jotzen duen edonori, besteak beste, leku jakin batera joatea, ordutegi jakin batean.

Baina, zorionez, gainditzeko moduan ditugu, gaur egun, orain arteko ereduaren baldintza horiek, hartzaile potentzial askorengana heltzea oztopenen dutenak, hau da, denbora edo ordutegi jakin bati lotu behar izatea eta lekua edo toki jakin batera jo behar izatea

Gizartearen zati esanguratsua euskaltegien eskaintzatik kanpo geratzen dela ikusteak ekarri du, azken urteotan, autoikaskuntza-sistemak garatzeko premia. Gure jarduna berdin bermatuko bagenu, baina bakoitzari, berak nahi duen ordutegian eta berak aukeratutako lekura helarazteko moduan, hartzaile berriak, hau da, ikasle berriak, geureganatuko genituzke eta ohiko hartzaileei ere, ohiko ikasleei alegia, eskaintza zabalduko genieke irakaskuntza tradizionala ordezkatu barik.

Azkenik, kontuan eduki behar dugu euskalduntze-prozesua oso luzea dela eta epe luzerako hitzarmena eskatzen diola ikasleari. Hori horrela izanik, daitekeena da gero eta lagun gehiago ohiko erritmoari jarraitzeko prest ez egotea eta beste era bateko sistemak, ikas-irakastekoak, eskatzea. Beraz, ikasteko eskaintza askoz ere hiritar gehiagorengana eraman nahi izanez gero, gero eta argiago ikusten da esparru berriak urratu beharra. Eta horrek esan nahi du, gaur egun, geureganatu ez ditugun hiritar asko aurrerantzean ikasle izan daitezkeela.

Oinarri teorikoak

“Teoriarik gabe praktikarekin maitemintzen direnak itsasorratzik eta lemarik gabeko pilotuak bezalakoak dira, inoiz ere nora doazen jakingo ez dutenak, alegia”

Leonardo da Vinci (1452-1519)

Lerro hauen bitartez ez ditugu autoikaskuntzaren oinarri teorikoak finkatu nahi, hainbat liburutan kontzeptu honetaz nahikoa argibide biltzen delako. Hala ere, komeni da hainbat abiapuntu azpimarratzea, modu labur batez bada ere.

Abiapuntuak

Teoriak teoria eta metodologiak metodologia, hizkuntz irakaskuntzak ikasleen erantzukizuna eta autonomia bideratzeko beharra azpimarratzen omen ditu.

Zenbaitentzat, ikaslearen autonomia aurrez programatu eta prestatutako ikas-prozesua irensteko aukera omen da. Beste zenbaitentzat, ordea, ikasle autonomoa da bere ikas-prozesuari buruzko erabakiak bakarrik zein taldean hartzen dituen. Eta azkenik, bada autonomia ikasteko gaitasuna adierazten duela aldarrikatzen duenik. Henri Holec-ek (1984) honela definitzen du autonomia azken irakurketa horren arabera: *nork bere ikaskuntza bere gain hartzeko gaitasuna*. Definizio horren arabera, ikasten dakien ikaslea da autonomo. Baina ikasten jakiteak ez du esan nahi soilik non eta noiz ikasi jakin, baizik eta beharren arabera zer ikasi, nola ikasi eta nola ebaluatu ere.


Bestalde, azpimarratzekoa ere bada ikaskuntzaren planteamenduak bi muturreko kontzepzioren artean kokatu direla, bat ikaslearengan ardaztutako ikaskuntza, ikas-prozesuaren eragile nagusia ikaslea denean; eta bestea, irakaslearengan ardaztutako ikaskuntza, ikas-prozesuaren iturria, gidaria eta kontrolatzailea irakaslea denean. Hala eta guztiz ere, ugari dira mutur bi horien artean dauden aukerak, inolaz ere ez elkarren aurka-koak ez direnak, osagarriak baizik. Ikuspegi horretatik, hiru multzotan bana dezakegu ikaskuntza:

- a) *Talde-ikaskuntza*: taldean eta irakaslearengan oinarritutako ikaskuntza, baina taldeko lanaz gain, ikaslearen bakarkako lana ere beharrezkoa da, taldean bereganatutako inputa prozesatu eta asimilatzeke.
- b) *Autoikaskuntza gidatua*: ikasleak bakarka ikasten du baina irakasle baten laguntzaz eta gidaritzapean (aholkularitza, tutoretza).
- c) *Autoikaskuntza autonomoa*: ikasleak bere kontura ikasten du, hau da irakaslerik gabe.

Era berean, sarreran aipatutako irakaskuntza ulertzeko, era berriaren alderdi sendoak azpimarratu behar ditugu:

- Lehenengoa, erritmoari lotua dago. Egungo jardunean, euskaltegiak erabakitzen du ikaslearen erritmoa. Horrek aurretik hitzartutako ordutegi jakin batean aritzera behartzen du. Autoikaskuntza-programak garatzean, ikasleak berak nahi duen erritmoan ikasteko aukera eskaintzen da.
- Bigarrena, espazioari lotua. Ikasleak nahi duen lekuan ikas badezake ere, ikas-irakasteko eredu honek askoz ere aukera gehiago eskaintzen dizkio bere bizilekutik urrun dagoen euskaltegian ikasteko. Esan bezala, leku jakin batera joateko ezintasuna ez da oztopo izango, zeren-eta eredu berriari esker, etxetik mugitu gabe edozein euskaltegitan ikasi ahal izango baitu, mutur batera eramanda, jakina. Beste era batera esanda, euskaltegiaren ikaslegaiak, bere ingurukoez gain, euskara ikasi nahi duten guztiak izango dira.

Aldagai hauek irakaskuntzari aplikatuz gero, eredu desberdinak azalduko zaizkigu, denak kontuan hartzekoak (ikus .1).



Aurreko laukian aipatu ditugun irakaskuntza-ereduak (bertakoa, baliabide-zentroak, urrutikoa eta gela birtualak) laukiaren erpinetan daude, baina errealitatean, egoera gehienak laukiaren beste edozein puntutan kokatzen dira.

Autoikaskuntza definitzen

Ausardia behar da autoikaskuntzaren definizio bat emateko, askotan sortzen baitzaigu kontzeptu desberdinen arteko nahasketa. Hitza beraren osagaietan oinarritzen bagara, auto eta ikaskuntza alegia, era autonomoan ikastea litzateke.

Horri helduz, bi puntu azpimarratu nahi genituzke:

- a** Definizioa ematerakoan, ikaskuntzaz ari garela, irakaskuntzaz baino gehiago. Urte askotan, talde-lana burutu ondoren, gogoan harturik gure eskarmentuak erakutsitakoa batetik eta hizkuntzen irakaskuntza arloko etengabeko ikerketek diotena bestetik, konturatu gara ikaslea dela ikas-irakaskuntza prozesuaren ardatza eta ez irakaslea. Irakaslea informazio-iturri bat da, ez bakarria, baliabideak eskura jartzen ahalegintzen dena, prozesuaren zenbait unetan ikaslea bideratzen duena, eta abar. Ikaslea da, ordea, ikasten duena, eta ikaskuntza ez doa beti irakasleak irakatsi nahi dionarekin bat. Ikasleak, askotan, irakasleak irakatsi nahi dizkion zenbait eduki bereganatzen ditu. Baina, beste zenbaitetan ez. Eta, beste batzuetan, irakasleak irakasten ez diona ere ikasten du. Ikaskuntza banakako prozesua da, norberak egin beharrekoa, beste inoren ordeztu egin ezin duena. Argi dago, beraz, irakaskuntza-arlori iritsi dela norbanakoaren interesak eta ikasteko gaitasun desberdinak kontuan hartu beharra.
- b** Bigarren osagaia autonomiarekin lotua dago, arazoaren erantzukizuna nork bere gain hartzeko gaitasunarekin, alegia. Autonomia esatean, ikasteko gaitasunari buruz ari gara, nork bere ikas-prozesua zuzentzeri iristeko estrategia egokiak erabiltzen jakiteari buruz, alegia. Horrela, ikasle autonomoa da ikasteko beharrezkoak diren trebetasunak dituen eta ikas-prozesuaren erantzukizuna bere gain hartzeko gai


dena. Beraz, era autonomoan ikasteak nork bere ikas-prozesua kudeatzea esan nahi du, hots, helburuak zehaztu, edukiak eta aurrerabidea definitu, jarduerak aukeratu, metodologia, erritmoa eta iraupena erabaki, eskurapena eta prozesua ebaluatu eta abar. Azken batean, ikasten jakitea da kontua. Baina, hau ez da berez eskuratua den gaitasuna, guztiz bestelakoa baizik. Izan ere, beste edozein gaitasun bezalaxe ikas daiteke ikasten.

Autoikaskuntza esatean ikasteko moduari buruz ari gara. Erarik zabalean hartuta, irakaslea aurrez aurre ez dagoela ikastea da. Ohiko irakaslearen ardurapeko taldeko irakaskuntzaren saioetatik ikaslearen ardurapeko bakarkako ikaskuntza-saioetara egin beharreko jauzia dugu erronka, baina ohiko jardunaren kalitatean kalterik sortu gabe. Jauzi honek segida bat osatzen du, ikas-irakas modu guztiak bereganatzen dituena.

Autonomiaren kasuan ere segida bat sortzen da. Mutur batean ikasle ez-autonoma aurkitzen dugu, erabat gidatua dena, eta bestean ikasle autonomoa. Tarte horretan kokatuko dugu ikasle-tipologia zabala.

Taldeikaskuntzatik autoikaskuntzara, eta autonomiatik ez-autonomiara, bi segida hauek gurutzatzen baditugu ikas-irakas eredu ugari jasotzen dituen markoa osatuko dugu, .2 irudian ikus daitekeen bezala:

.2:



Laukiaren une batean edo bestean gure jarduna kokatzean, irakaskuntza eraginkorra izango bada, behar beharrezkoa da irtenbidea ematea metodologian, didaktikan, materialetan eta abarretan izan ditzakeen ondorioei. Erronka da irakaskuntzaren edukia ikasleari modu esanguratsuan helaraztea, aukeratzen duen ikaskuntza-eredua aukeratzen duela ere, bai ikasgelan, bai urrutiko eran.

Autoikaskuntzaren alderdi ahulak eta sendoak

Lehenago esan bezala, lerro hauen helburua ez da autoikaskuntzaren oinarriak zehaztea. Beraz, azalpen teorikoa baino formulazio praktikoa helburu izanik, adierazitako abiapuntuetatik, eta ausardia emandako definizioa kontuan hartuz, esan behar da autoikaskuntza-zerbitzua eratzeko zehaztu beharra dagoela. Prozesu horretan ezinbestez hautatu behar da hainbat ereduren nahiz jokabideren artean. Norberak eginiko hautaketa horrek, zilegia izanik, ez du gutxiesten beste batek egin leza keena, edo ez luke gutxietsi beharko, behintzat, norberarena bezain zilegia bailitzateke. Hauxe dugu lehenengo alderdi ahula: teoriatik praxiserako jauzian eratu, zehaztu eta mugatu beharra, alegia. Horiek

horrela, hemendik aurrera bakarrik murgilduko gara izan litezkeen artean autoikaskuntza-zerbitzuaren ereduetakoa baten inguruan.

Eta halatan, gure hautaketak eta ereduak ordenagailu bidezko autoikaskuntza-sistema ahalbidetuko lukeen zerbitzua antolatzea garrantzitsua da. Eredu horren mugarririk hiru atal bereizten dituzte autoikaskuntzaren kontzeptuaren barruan: autoikaskuntza autonomoa, autoikaskuntza gidatua eta bakarkako lana (taldeikaskuntzaren barnean, talde-lanarekin batera).

Hala ere, orain arteko eskarmentuak nabarmen erakusten digu ikaslearen benetako autonomia gura baino urrutiago dagoela. Beraz, hautatutako zerbitzuaren hiru ataletatik biren inguruan ardatzuko genduzko gure eskaintza, batez ere: batetik, autoikaskuntza gidatua, bide honetatik abiatzen den ikasleari irakasle, laguntzaile zein aholkulari baten zerbitzuak eskaintzeko; eta bestetik, taldeikaskuntzaren osagarri gisa, ikasleari bakarkako lana era eraginkorragoaz eta irakasle baten zuzendaritzapean egin dezan ahalbidetzeko. Hirugarrena, berriz, gure jardunetik kanpo utziko genduzko eta bezerorik balego, inoren laguntzarik gabeko autoikaskuntza autonomoa hautatzen duen horri aholkatuko genioke bide hori bertan behera uzteko eta autoikaskuntza gidatuaren bidetik abiatzeko.

Horren arabera, proposatzen dugun zerbitzuaren atalek, hau da, autoikaskuntza gidatuak eta taldeikaskuntzaren osagarria izateak, aho biko ezpata baino ez dute osatzen. Bakoitzak bere alde onak eta bere mugak dauzka. Beraz, biderik eraginkorrena biak elkar osatu eta uztartzea litzateke. Eta gainera, zenbait ikasleri eskainiko lieke ezinbesteko duten malgutasuna, taldeikaskuntzak ematen ez diona.

Ildo honetatik jarraituz, hiru arazo edo zailtasun azpimarratu nahi ditugu, gaindiezinezkoak ez diren arren: lehenengoa da autoikaskuntza-gelek ezinbestez duten beharra irakaslea, monitorea edo aholkularia(k) izateko, zeren-eta beharizan horrek, besteak beste, antolaketan ekar baititzake aldaketak; bigarrenik, erabili beharreko materialak, aldezturik ezarri beharreko irizpideen arabera sortu, sailkatu eta antolatzeko beharra dugu; eta azkenik, honelako gelek eskatzen duten espazioa, langaiak material idatzietan oinarritzen badira batez ere.

Lehenengoari dagokionez, era batez zein bestez jokatu beharko da eskualtegi bakoitzaren egitura eta baliabideen arabera, beti ere norberak ezarritako helburu zehatzak ahaztu gabe, jakina. Bigarrena, berriz, taldeikaskuntzan gertatu bezala, arazo bihurtzeko, baldin-eta material-gintza ez bada aldezturik planifikatzen, hau da, zerbitzua eskaini baino lehen, noski. Eta hirugarrenari dagokionez, kontuan hartu behar da gaur egungo teknologiak zabaldu egiten dizkigula duela urte gutxi asmatzekoak ziren bideak, zeren aukera ematen baitigu euskarri idatziek nahiz ikus-entzunezkoek beharko lituzketen langaiak ordenagailuan biltzeko.

Bestalde, honelako bidean barrena sartuz gero, ordenagailu bidezko autoikaskuntza-sistemek osa dezakete orain arte ohikoa izan den zuzene-

ko irakaskuntza, dituzten muga eta gabeziak dituztela, ahozko trebetasunak lantzea, esate baterako. Hala eta guztiz ere, sistema horiek ordezko eskaintza gisa erabil daitezke, batez ere, zailtasunak daudenean, ohiko erara irakasteko zeren-eta, oraingo sisteman, ikaslea aurretiaz ezarritako egutegiaren eta ordutegiaren menpe geratu behar baita, bertaratzea nahitaezkoa duelako.

Horiek horrela, modua dugu, gaur egun, euskara ikasteko beste aukera bat eskaintzeko, eskaintzen diren euskara-ikastaroetara huts egin gabe ezin joan daitezkeen ikasleei zeren-eta egutegiak eta ordutegiak malguak izaten baitira ordenagailu bidezko autoikaskuntza-sistemetan.

Hala eta guztiz ere, beste atal garrantzitsu bi aipatu behar ditugu autoikaskuntza-sistemetan. Biak dira aztertu, landu eta zaindu beharrekoak: bat dagokio irakasleen prestakuntzari, bai didaktika-alorrean, bai tresneriaren nahiz ikasgai informatikoen aldetik; eta bestea, tutoretza-lana beren gain hartuko luketenen jarrerari dagokio, hau da, ikasleenganako jarrerari zein sistemari dieten konfiantzari.

Autoikaskuntza versus taldeikaskuntza

Teknologia berriak, autoikaskuntza eta antzeko berbak askoren ahotik entzutean, eta, sistema berrien nahiz zaharren aldeko zein kontrako hainbat zentzubako joera eta hamaika jarraitzaileen jarrera sutsoak ikustean ere, bat baino gehiago has liteke kontra egiten aurreko eta betiko zein biharko sistemen abantailak gorai patzen edo gutxiesten. Eta, batzuek eurenari eutsiz besteena alboratuko lukete, sakonetik, astiro eta patxadaz aztertu gabe. Eta beste batzuek gauza bera egingo lukete, iruntzitara egin ere. Ziur asko, hainbat gaizkiulertu, informazio-falta eta aurreiritzi kutsatu franko ere topa genitzake iritzi-nahaspila horren iturburuan.

Hala ere, Alain Badiou-k (1976) dioenez, *borroka da pentsamendu dialektikoaren zutabe bakarra: horixe da dialektikaren izatea, matxinatutako filosofia bezala*; eta horretan oinarrituta Badiou-k jarraitzen du esaten *ezinezkoa dela norberarentzat bakarrik arrazoi izatea*. Hau da, badirudi zerbaiten kontra ekinez gero, badugula arrazoirik. Ikuspuntu horretatik, errealitatean existitzen diren gauza guztiek, baita gauza horiek irudikatzen edo islatzen dituzten kontzeptuek ere, beren baitan elkarren borrokan dauden aurkakoen unitate bakarra osatzen dute, non berriak zaharraren kontra egiten duen eta non berriak zaharra deuseztatu eta hutseratu egiten duen. Ikuspegi hori Mao-Tse-Tung-ek esaldi batean bildu zuen. Eta Anton de Iralak (1909-1996), euskal politikoa, intelektual eta idazlea zenak, esaldi horixe jarri zion izenburu 1975.ean argitaratu zuen liburuari: *Bat bitan banatzen da*.

Eta dialektika horretan oinarriturik, taldeikaskuntza eta autoikaskuntza osotasun baten osagai biak dira, *ez dago ezer bi batean ez dena* (Badiou, Alain 1976). Biak dira beharrezkoak eta ditugun baliabideen arabera hurbilago egongo gara batetik bestetik baino. Ikus ditzagun ondoko laukian sistemaren osagai biak:

.3:

IKASKUNTZA		
Sistema >>>>>>	AUTO	TALDE
Espazioa >>>>>>	Autoikasketa gela Zibergela	Ikasgela
Araua >>>>>>	Malguak	Zehatzak (ordutegia)
Mugak >>>>>>	Ikaslearenak	Ikasle bakoitzarenak eta taldearenak
Antolatzailea >>>>>>	IKASLEA (<i>irakaslea</i>)	IRAKASLEA (<i>ikaslea</i>)
Tutoretzaren ardura >>>>>>	Aholkularia (<i>aholkuak ematen ditu</i>)	Irakaslea (<i>irakatsi egiten du</i>)
Hartzailearen tipologia >>>>>>	Ikasle soltea	Taldeko ikaslea
Aurrerabidea >>>>>>	Ikaslearen esku	Taldearen esku
Beharrak >>>>>>	Autonomoa izaten ikasi Zenbait ekintzatarako taldelana	Autonomoa izaten ikasi Bakarkako lana Jarraipen bakoiztua
Ikasmaterialak >>>>>>	Ikasleak aukeratu	Irakasleak aukeratu

**Esparrua
mugatzen**

“Berebak ipotxak dira; adibideak, berriz, erraldoiak”

Suitzako atsotitza

Aurreko lerroetako markoan oinarritzen garelarik, azalduko ditugu eman daitezkeen eredu guztien artean autoikaskuntza-zerbitzua mugarrituko luketen adibideetako baten xehetasunak, hau da, helburuak, ezaugarriak, norentzakoak, erabilera-motak eta baliabideak. Esan gabe doa, horiek

guztiak zehaztuta ere, zerbitzuak bere fruituak eman ditzan, eraketa sendoa, argia, bideragarria eta ohiko taldekako irakaskuntzarekin uztartzeko modukoa beharko dugula.

Helburu orokorrak

Autoikaskuntza-zerbitzuaren bitartez, gutxienez, honako hiru helburu orokor hauek, prozedurari zein didaktikari lotuak, lortu beharko lirateke:

- 1 Produktu eta zerbitzu berriak eskaini.
- 2 Taldeikaskuntzan gertatzen diren arazoak eta gabeziak gainditu.
- 3 Ikaslearen autonomia garatu.

Lehenengo helburua HABeri HABESEA Legeak (euskalduntzean bide berriak etengabe jorratu) zein Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (euskara ikasteko multimedia-sistemak garatu, “Multimedia Euskarriko Zentroen” erabilera bultzatu) zehaztutako eginkizunen artean kokatuta egoteaz gain, etorkizunari begira funtsezkoa da euskaltegientzat, “bezero” berriak erakar ditzaketelako.

Bigarrenaren bitartez, berriz, hainbat gabezia eta arazo alboratuko lirateke, neurri handi batean, behinik behin. Hala, eguneroko jardunean ikasleak eskolaratzean antzematen ditugun arazoak egutegian nahiz ordutegian saihestu egingo lirateke, eta, beste horrenbeste egingo genuke, behin eskolaratuz gero, taldearen ezinezko homogeneizazioa zein ikasle bakoitzaren ikasteko sistemak gainerako ikaskideenekin uztartzeko arazoen kasuan.

Eta azkenik, autoikaskuntza-gela ikas-sistema berri baten adierazlea denez gero, hirugarren helburua erdiesteak lagun dezake ikaskuntzaren ardura nork bere gain hartzeko gaitasunaren eskurapenean.

Ezaugarriak

Autoikaskuntza-zerbitzuko gelan hainbat material izango du ikasleak irizpide batzuen arabera sailkatuz, berak erraz eta berehala aurki dezan interesatzen zaiona: ariketa autozuzentzaileak, ikusentzutekoak nahiz idatziak, kontsulta-liburuak, etab. Ikaslea, berak nahi edota ahal duenean, joango da honelako gelara eta, bertan dagoela, nahi duena, gehien interesatzen zaiona edota, zenbait kasutan, irakaslearen aholkuei jarraiki burutuko du eginkizuna.

Baina horretarako, ikasleak gela horretan eskaintzen zaionaz baliatzen jakin beharko du, itua oinarritzko galdera hauei egoki erantzuten ikaslea baita: zer egin behar dut gaur? (ikas-helburuaren definizioa); nola erabiliko nuke dokumentu hau? (ariketaren aukera); zerbait ez dakidanean edo zalantzaren bat daukadanean nora jo? (gelako arduradunaren rola).

Norentzakoa

Jakina da honelako gelez balia daitezkeenak bi motakoak direla nagusi-ki: alde batetik, euskaltegiratuta dauden ikasleak, eta beste aldetik edozein arrazoiengatik euskaltegiratuta ez daudenak.

Lehenengo kasuan aurki ditzakegunak dira taldekako irakaskuntzan murgildurik euskara ikasten ari diren ikasleak baina, bakarkako lanaren garrantziaz jabeturik, ikasitakoa sendotzeko nahiz birpasatzeko edo aurrerago joan ahal izateko, baliabide eta material osagarrien bila dabil-tzanak.

Eta bigarrenean, arrazoi desberdinengatik ohiko taldekako irakaskuntzan integra ezin daitezkeen ikasleak ditugu: ordutegi-arazoak direla, nortasun-arazoak, urruntasun geografikoa, etab.

Multzo horretan ere, autodidaktak, hau da, bakarrik ikasi nahiago dute-nak sartzen dira, baita behar eta interes zehatzen erantzuna bilatzen dute-nak ere, hala nola, administrazioko hizkuntza, zientzi arlokoa, etab. Bestalde, enpresa pribatuetako eta administrazioko goi-kargudunak ere (zuzendariaik eta zuzendaritza-kideak) badira erabiltzailegai.

Hala ere, bigarren mota honetako erabiltzailegaiak “eskari erreala”ri dagozkio, hau da, euskara ikasteko nahia edota beharra eduki arren, ohiko sistemetan sartzerik ez daukatenak dira. Baina horiez gain, badago beste multzo handi bat euskara ikasteko interesa eta gogoia erakutsi arren, aurrerapauso hori ematera heltzen ez direnez osatua, hau da, “eskari potentziala” deritzona.

Beraz, autoikaskuntza-zerbitzuak “eskari potentziala” ere oso kontuan hartu behar du, multzo hau osatzen duten pertsona askorentzat taldekako irakaskuntzarako zubia izan daitekeelako. Izan ere, ezbaian dagoen jende askorentzat une honetan pentsaezina da euskaltegi batean matrikulatu eta ikasten hastea, baina bide hurbilago eta erosoago batez osatutako alter-natibaren bat eskainiz gero, bat baino gehiago ausartuko litzateke bide horretan barrena.

Azkenik, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak eragindako normaliza-zio eta erabilera-programak hedatu ahala, helburu berezi eta zehatzetara-ko ikastaro laburrak eta berariazkoak beharko lituzketenak ere ezin ditugu ahaztu (lan-munduko arloak, hizkuntzaren aldetiko sektore estra-tegiakoak...).

Erabilera-motak

Aurrekoak kontuan izanik, autoikaskuntza-zerbitzurako erabilera-motak zehazterakoan, aukera ezberdinak aztertu behar ditugu: zuzen-zuzeneko saio batean integratua dagoen ikaslearengandik hasi eta bertan ez egote-ko sistema aukeratzen duen ikaslearengana helduz. Hori horrela, honako erabilera-mota hauek azpimarratu ahal dira:

- a Zuzeneko taldeikaskuntzaren barruko ekintza, hau da, zerbitzu hone-taz ohiko taldeetan sartuta dauden ikasleak baliatzea euren kabuz ordu batzuk arituz beren ikastaroen ordutegi barruan eta irakaslearen gida-pean, bideo-saioetan eta antzekoetan gertatu bezala. Saio hauen maiz-

tasuna euskaltegiak berak zehaztuko luke. Arrazoi bi aipatuko genituzke honelako saioak antolatzeko:

- Alde batetik, ikaslearen autonomia landu beharra. Behin baino gehiagotan egin dugu aldarrikapen hori. Ikasleak bere beharrak, gustuak, itxaropenak, lan egiteko moduak eta antzekoak ezagutu behar ditu. Hori lortzen duen aurreikusitako beharko dugu baita beharri-zan horiek asetzeko modua eskaini ere.
 - Bestalde, irakasleak aukera izango du ikasgelako aniztasunari erantzuteko. Ikasgelako programa enbor bakar baten inguruan diseinatuko du, ikasleentzako ezaugarriak eta itxaropenak kontuan hartuz; eta horrez gain bideratu egingo ditu ikasleak norberaren beharri-zan era autonomoan betetzera.
- b** Beste erabilera-mota da zuzeneko taldeikaskuntza kanpoko ekintza edo taldeko jardunaren osagarri gisa hartzen denean, hau da, ohiko taldeetan dauden ikasleak beren ikastaro-moduluen ordutegiz kanpo osagarri moduan baliatzea, liburutegia erabil daitekeen bezala. Badira ikasleak denbora gehiago dutenak eta, agian, azkarrago aurreratu ahal izango luketenak, baldin eta aukera emango bagenie euren kabuz, era osagarrian, lan egiteko. Beste batzuek, ordea, arazoak izaten dituzte ikastaldearen erritmoari egokitzeko. Zenbaitek oso argi ikusten dute zer behar duten edota jakin-mina izaten dute puntu zehatz baten inguruan. Autoikaskuntza-zerbitzuak bidea eman diezaike horiei guztiei irtenbide egokia izateko.
- c** Autoikaskuntza-gelaren bidezko beste zerbitzu-mota bat da dena delako arrazoiarengatik euskaltegiko ohiko taldeetan sartzerik izango ez duenari euskaltegiak eskainiko liokeena. Ikaslea ez da talde bateko kidea, eta baliabide anitzeko zentro batera hurbiltzen da bere ikas-prozesua hasteko edota horri jarraitzeko asmoz. Zentroak aholkularitzaren zerbitzuaz gain, bestelakoak ere eskaini ditzake: mintza saioak, ikastaro berariazkoak eta laburrak, hitzaldiak, etab.
- d** Bertaraterik eskatzen ez duen zerbitzua ere aipa liteke. Hau da, autoikaskuntza-zentrotik kanpo, aholkularitzarekin edo gabe. Horietan, autoikaskuntza-sistema modu askotara proposa daiteke: ikaslea noizean behin zentrori hurbildu, telefonoz edota posta elektronikoz komunikatu. Komunikazioaren teknologia berriek are errazago egin ahal dute azken aukera honen gauzatzea.


Giza baliabideak

Helburuak finkatzea, diagnosia, ibilbidea, ikas-prozesua, jarraipena, ebaluazioa eta beste kontzeptu asko oso garrantzitsuak dira. Baina, nola bideratu horiek guztiak autoikaskuntza-zerbitzu batean?

Ikasleak talde baten barruan irakaslearen laguntza duen bezala, autoikaskuntza-sistema batean ari denean ere beste norbaiten laguntza izan beharko luke. Lagun hori izendatzeko hitz desberdinak aurki ditzakegu bibliografian (tutore, laguntzaile, ...). Bat aukeratze aldera, terminologia mailako nahasketak albo batera utziz, aholkularia erabiliko dugu.

Autoikaskuntza-zerbitzuko aholkulariaren eta taldeikaskuntzako irakaslearen helburuak berdinak dira: ikasleak hizkuntza berria ikastea eta horretarako lagunduko dion ikaskuntza autonomoa bultzatzea. Bi horien artean dagoen desberdintasuna da beraien jardura non, noiz eta nola gertatzen den: irakaslearena, gelan, ikasleekin batera eta une berean; aholkulariarena, berriz, une jakinetan eta batzuetan ikaslea aurrean ez dagoela.

.4:



Serra Escorihuela, Rosaura. 1999.

Autoikaskuntza-zerbitzua eskaini nahi bada, aholkularia giltzarri da, bera izango baita ikasleengan ikasten ikasteko premia piztuko duena, materialak eta baliabideak antolatuko dituena, ikasleekin elkarreragingo duena erabakiak hartzen ikas dezaten, burutu duten prozesua eta lortutako emaitzak ebaluatzeko baliabideak eskura jartzeaz arduratuko dena eta abar. Beraz, aholkularia ez da autoikaskuntza-gela batean edo “on-line” lana egiten duen irakaslea. Modu honetan ari garenean, beste funtzio batzuk kontuan eduki behar ditugu, talde arruntetan beste era batera gertatzen direnak. Hona hemen bi figura horien artean Nancy-ko unibertsitateko irakaslea eta CRAPEL (*Centre de Recherches et d'Applications Pédagogiques en Langues*) erakundeko zuzendaria den Philip Riley-k proposatzen digun laburpena:

IRAKASLEA	AHOLKULARIA
Helburuak markatu.	Erabiltzailearen informazioa lortu eta konturazi: euskara ikasteko zergatia, beharrak eta helburuak
Ikastaroaren edukia erabaki.	Zergatik, zertarako, nola, zenbat denbora: informazioa eman, argitu.
Materiala aukeratu.	Materialak iradoki, beste baliabideak ikusarazi.
Denbora, tokia eta erritmoa erabaki.	Antolatzeko moduak iradoki. Metodologia iradoki.
Klaseko lan egiteko modua erabaki.	Erabiltzaileari entzun eta erantzun.
Interakzioa hasi eta kudeatu.	Informazioa interpretatu.
Ikas-prozesuaren jarraipena.	Jardueraren jarraipena eta kontrola ikasleak berak eraman dezala iradoki.
Gertatzen denaren informazioa gorde: etxerako lanak, klasean gertatzen dena...	
Edukia azaldu.	Teknikak azaldu.
Galderei, zalantzei... erantzuna eman	Ordezko prozedurak eskaini.
Zuzendu eta notak jarri.	Autoebaluatzeko tresnak eman.
Testak, azterketak...	Autoebaluaioari feedbacka eman.

Riley, Philip 1997.

Aholkulariak bi eginkizun nagusi izango lituzke: autoikaskuntzaren koordinatzailea izatea eta ikasleari ikasten laguntzea bere ikas-prozesuaren erantzule izan dadin. Horretarako, ezaugarri batzuk bete beharko lituzke, oro har, irakasle on batek dituenak:

- Batetik, jendearekiko harremani dagokienez, jendearekin ondo moldatzea, entzuten jakitea, antzetsua edo iaioa izatea, ikaslearen nahiak eta beharrak interpretatzen jakitea, hau da, eta labur esanda, jendearekiko abegi onekoa izatea.
- Bestetik, hizkuntza zein didaktika-arloan prestakuntza ona izatea, baita autoikaskuntzaz ere, euskalduntze eta alfabetatze prozesuak ezagutzea, ikusentzungailu eta informatika-alorretan ezagupen teknikoak izatea.

Era berean, zeregin nagusia ikasleari ikasten laguntzea da, hau da, zer ikasi, nola, zerez eta norekin erabakitzen laguntzea. Lehenik, ikasleak azken helburua zein duen definitu beharko du eta, ondoren, helburu oro-

kor hori lortzeko zein prozesuri jarraitu behar dion antolatu eta erabaki. Horretarako, aholkulariaren laguntza izango du. Aholkulariak, beraz, ikasleari lagunduko dio hizkuntz arloan zein ikas-prozesuan izango lituzkeen arazoetan behar dituen irtenbideak bilatzen.

Eta halatan, lehenengo eta behin, ikaslearen diagnosiaz arduratuko da: bere beharrak (komunikazio-mailakoak zein hizkuntzaren alorrekoak) zehazten lagunduko dio. Ezinbestekoa da nola ikasten duen, zertarako eta bestelako xehetasunez informazioa biltzea. Ondoren, lan-plana zein izango den zehaztuko dute eta aholkulariak ikasleari sistemaren informazioa emateaz gain, ondoen datorkion materiala jarriko dio eskura.

Halaber, lanaren jarraipena nola egingo duen zehaztuko du, edozein unetan gauzak nola doazen jakiteko. Ikasleak etengabe izango du gertu-gertutik bere ibilbidearen berri, informazioa eta ebaluatzeko tresnak.

Ebaluazioaren atal honetan, batetik, ikasleak burutu beharreko autoebaluazioa izango genuke eta, bestetik, aholkulariak burutu beharrekoa. Horrek, informazio-iturri desberdinak erabiliko ditu: ikaslearena berarena, autoikaskuntza-zerbitzuan parte har dezaketen beste irakasleena, mintza saioena, ariketek eta bestelako jarduerak emandakoa. Zer esanik ez, gauzak behar bezala egiteko ondo baino hobeto antolatu behar dela informazio hau guztia.

Erantzukizuna ikaslearena eta aholkulariarena da; azpimarratu beharra dago biona dela. Ardura guztia ez da aholkulariarena izango, ezta ikaslearena ere. Oreka horretan ez diogu ikasleari erabakitzeko ahalmenik kenduko, baina bai erreferentziak eskaini, prozesuan gal ez dadin.

Aholkularitzari buruz esandakoaz gain, autoikaskuntza-zerbitzuan beste bi lan-esparru nagusi bereiz ditzakegu: administrazioa eta antolaketa. Bakoitzak bere eginkizun jakinak baditu ere, beti ez dira pertsona desberdinen ardurapean gauzatzen. Are gehiago, zenbaitetan, pertsona bakar baten ardura izan litezke hiru eginkizunak: antolaketa, administrazioa eta aholkularitza. Eratu nahi dugun autoikaskuntza-zerbitzuaren ezaugarriek eta eskura izango ditugun baliabideek aginduko dute lan horiek aurrera eramatea pertsona bakar baten edo gehiagoren eginkizuna izango den. Dena dela, aipatu esparru bakoitzaren azpian egon daitezkeen eginkizunak eta figurak hasiera-hasieratik bereiztea eta definitzea komenigarria bezain ezinbestekoa da.

Azpiegitura

Autoikaskuntza-zerbitzuko gelaren diseinua eta eraketa berari emango zaion erabileraren araberakoa izango dira. Eta halatan, autoikaskuntzaz gain, irakasleentzako informatika ikastaroak antolatzeko edota aplikazio eta materialen aurkezpenetarako erabili nahi bada, gela osatuagoa izango da. Baina, proposamen honetan, lehenago aipatutako erabilera-motek beharko luketen gutxieneko azpiegituraren nolakotasunak azalduko ditugu.

Horiek horrela, azpiatal honen barruan bi multzo bereiztuko ditugu: alde batetik, lokalari buruzko azpiegitura orokorra (gela, altzariak, etab.); eta bestetik, hornikuntza informatikoa (hardwarea eta softwarea bereiztuz).

Lokalari dagokionez, neurriak aurreikusten den erabiltzaile-kopuruaren arabera izango badira ere, autoikaskuntza-zerbitzuak gutxienez 40-50 metro koadroko gela izango luke, behar besteko apalez, mahaiez eta gainerako tresneriaz hornituta. Hor, ikasleentzako gelaz gain, irakasle-aholkulariak jarraipena eta aholkularitza burutzeko gela ere legoke.

Gutxienerako azpiegitura horretan komeniko da, ahal den heinean, ikasle-espazioa hainbat gunetan banatzea: batetik, ordenagailuen gunea; bestetik, Tb-bideo monitoreen eta audiozinten gunea (zeren hainbat materialen digitalizazioa ez baitago edonoren esku); eta azkenik, lanerako gunea idazteko, irakurtzeko, ariketak egiteko eta kontsultetarako. Gune horiek behar besteko apalez, mahaiez eta gainerako tresneriaz hornituta leudeke. Halaber, guztiz baliagarri litzateke aisialdirako gunetxo bat, astiuneetan ikasleak elkarrekin egon daitezten.

Hornidura informatikoari begira, aski lirateke hardwarearen aldetik gaur egun merkatuan dauden ekipo multimedia estandarrek. Ahalbideek eta antolatuta nahi den zerbitzuaren ezaugarriek mugatuko lukete ordenagailu-kopurua. Hala ere, gutxienerako azpiegiturak ikasleentzako dozena bat ordenagailuz, irakasle-aholkulariarenaz eta legokiokeen zerbitzuz hornituta egon beharko luke.

Softwarearen aldetik, berriz, tresna bi beharko genituzke: alde batetik, mailetan banatuta baina euskararen ikas-prozesu osoa bilduko lukeen programa multimedia (testua + audio + bideoa), Aurten Bai Fundazioaren HEZINET edo BOGA zein Didaktiker-en DDK Sistema Adimendua bezalakoa; eta bestetik, ikasleek, aholkulariak eta beste irakasleek arian-arian adierazitako beharren arabera osa litekeen ariketen biltegia edo mediateka kudeatzeko aplikazioa informatikoa.

Ikusita ditugu, bada, "Esparrua mugatzen" izenburupean: helburu orokorrak, ezaugarriak, norentzako, erabilera-motak, giza baliabideak eta azpiegitura. Eta badago sail horretan oso aintzat hartzea merezi duen azken atal bat ere: materialak. Beraz, geure arreta horrexeri eskainiko diogu eta baita osagai guztien arteko eraketari, amaierako gogoetei eta hainbat fitxa-ereduri ere, hurrengo alean, artikuluko honen jarraipenean.

Bibliografia

Arza, T. & Gonzalez, W. 1998. Autoikaskuntzarako proposamena. *Ele* 18: 83-100.

Badiou, A. 1976. *Théorie de la contradiction*. Paris: Maspero.

Barnett, L 1992. Zenbateko "auto" autoikaskuntzan. *Zutabe* 28: 54-57.

Benson, P., Voller, P. 1997. *Autonomy and Independence in Language Learning*. Londres: Longman.

Boixaren, M. 2000. *Autoaprendizaje de lenguas extranjeras*. Madrid: UNED.

Bosch, M. 1996. *Autonomia I aprenentatge de llengües*. Barcelona: Graó.

Dam, L 1995. *Learner Autonomy 3: from theory to classroom practice*. Dublin: Authentik.

Gremmo, M. 1994. Conseiller n'est pas enseigner: le rôle du conseil dans l'entretien de conseil. *Mélanges Pédagogiques* 22: 33-62. CRAPEL: Université de Nancy 2.

- HABE.** 1999. *Helduen euskalduntzearen oinarrizko kurrikulua*. Donostia: HABE.
- Holec, H.** 1984. *Autonomia bigarren hizkuntzen irakaskuntzan*. Itzulpen Saila, 2. Donostia: HABE.
- Klein, Stephen B.** 1994. *Aprendizaje. Principios y aplicaciones. Segunda Edición*. Madrid: McGraw-Hilf.
- Little, D.** 1995. *Learner Autonomy 1: Definitions, Issue and Problems*. Dublin: Authentik.
- Lonbide, P.** 2001. Autoikaskuntzarako oinarrizko baliabideak: aholkularitza-saioak. *Helduen euskalduntzearen II. Eta III. Jardunaldiak UEU/HABE*. Bilbo: UEU.
- Nordlund, J.** 2002. “D’ aquí a l’ autonomia. Mòduls d’aprenentatge autònom (ALMS, Autonomous Learning Modules)” *VII Trobada de Centres d’Autoaprenentatge. Autoaprenentatge: models d’integració dins i fora de l’aula*. Generalitat de Catalunya. Departament de Cultura.
- Novak, J., Gowin, D.** *Aprendiendo a aprender*. Barcelona: Martínez Roca.
- Ridley, J.** 1998. *Learner Autonomy 6: Developing Learners’ Thinking Skills*. Dublin: Authentik.
- Riley, P.** 1997. The guru and the conjurer: aspects of counselling for self-access. In Benson, P.; Voller, P (eds). *Autonomy and Independence in Language Learning*: 114-131. Londres: Longman.
- Serra, R.** 1999. Diàleg entre heteroformació i autoformació. *Articles de Didàctica de la Llengua i la Literatura*, 18: 41-52.
- Serra, R.** 2002. “L’autonomia: un objectiu didàctic de l’ensenyament-aprenentatge de llengües” *VII Trobada de Centres d’Autoaprenentatge. Autoaprenentatge: models d’integració dins i fora de l’aula*. Generalitat de Catalunya. Departament de Cultura.
- Trenchs, M.** 2001. *Nuevas tecnologías para el autoaprendizaje*. Lleida: Milenio.
- Villanueva, M. L.** 1994. “Aprendizaje heterodirigido, aprendizaje autodirigido: las condiciones de un posible diálogo”. Otaol, J.L.; Villanueva M.L. (ed.). *Primeres Jornades sobre autoaprenentatge de llengües*. Castelló: Universitat Jaume I.
- Villanueva, M. L.** 1997. Estilos cognitivos y estilos de aprendizaje. Autonomía y aprendizaje de las lenguas. Navarro, I.; Villanueva M.L. (ed.). *Los estilos de aprendizaje de lenguas*. Castelló: Universitat Jaume I.